

k:

Kultura

Urrezko Dominarekin omendu dute Mikel Laboaren urrezko ibilbidea


Pasa den azaroaren 11n erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak Urrezko Domina Mikel Laboari eskaintzea. Abenduaren 1ean jakin genuen, ordea, euskal kantugintzako ikonorik maitatuenak betiko utzi gintuela. Aurretik ezarritako

hitzordu hura omenaldi bero bat egiteko probestu zuten atzo. Laboa zenaren emazteak eta alabak jaso zuten Urrezko Domina Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiaren eta Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik.

Ane ARRUTI | DONOSTIA

«Mikel Laboa hil zen egunean elurra izan zen Arabako leku askotan». Hitz horiekin eman zion hasiera Bernardo Atxagak atzo Laboari eskainitako laudorioari, eta elur malutak izan zituen hizpide abeslari zendu berria gogora ekartzeko, «haren hitzak, haren kantak, ez daitezela ahaztu, ez daitezela gal, elur gainean txorien hankek utzitako arrastoak bezalaxe...». Luze hitz egin zuen Atxagak eta, batez ere, donostiarraren askatasuna nabarmendu zuen. «Aurre egin behar izan dio gizartearen presioari, (...) berriro pentsatu behar izan ditu tradizioaz jasotako espresa-moldeak, (...) baina askatasuna, halaber, sei, zazpi edo hamar minutu dirauten kantak egiteko noiz eta ia denak, hiru minutukoak diren garaian».

Jaime Otamendik gidatu zuen ekitaldia eta Laboaren emazte eta alabari hitz egin ez esan zuen, «hegoak ebaiki bazenizkiote, Mikel, ez zen Mikel Laboa izango eta guk Laboa dugu maite». Duela 23 egun azken arnasa eman zuen Laboak bizitzan zehar alboan izan dituen hainbat familiarrekoez gain, lagun eta lankide andana bildu zen atzo Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan ospatutako omenaldira. Horien artean ziren Joxe Anjel Irigarai, Ruper Ordorika, Xabier Montoia, Josean Artze, Juan Carlos Perez, Antton Valverde, Jose Luis Zumeta, Andoni Egaña, Iñaki Murua, Anari, Jabier Muguruza, Oreka Tx eta Lisabo taldeak edota Mikel Markez. Institutuzio ezberdinetako zenbait agintari ere presente egon ziren omenaldian, hala nola Foru Aldundiko Eneko Goia edota Iñaki Galdos, Donostiako Udaleko Ramon Etxezarreta eta Eusko Legebiltzako Miren Azkarate



Goian, Mikel Laboa zenaren emazte eta alaba, lehendakariaren eta diputatu nagusiaren eskutik Urrezko Domina jasotzen. Ezkerrean, Bernardo Atxaga, laudorioa irakurtzean. Hitz hauen gainean, Marisol Bastida, eskerrak ematen eta hunkituta.

Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS